# BILBAO-BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN

# ETIKA

# ETA

# JOKABIDE KODEA

# CÓDIGO ÉTICO

# Y

# DE CONDUCTA

# DEL

# CONSORCIO DE AGUAS DE BILBAO-BIZKAIA

2014ko urtarrilaren 29an Zuzendaritza Batzordeak Onartuta

Aprobado por el Comité Directivo de 29 de enero de 2014

## 1. SARRERA ETA XEDEA

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren (Partzuergoa aurrerantzean) etika eta jokabide korporatiboko kodeak erakunde honek funtsezkotzat hartutako balio eta printzipioak jasotzen ditu, funtzionamenduan zintzotasuna atxikiz erantzukizuna sustatzeko, erakundearen irudia zaintzeko eta eraginkortasuna sendotzeko, interes-taldeak aintzat hartuta betiere (azken horiek dira Partzuergoaren kudeaketan interesa duten edo kudeaketa horrek eragiten dieten pertsonak edo kolektiboak, Partzuergoaren barrukoak zein kanpokoak: Partzuergoko udalak, hornitzaileak, bezeroak, erabiltzaile eta kontsumitzaileak, administrazio publikoak, giza taldea, tokiko komunitatea, sektoreko enpresak, eta laguntzaileak).

## 1. INTRODUCCIÓN Y OBJETIVO.

El Código ético y de conducta corporativa del Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia (en adelante Consorcio) contiene los valores y principios que esta Entidad entiende fundamentales para promover la responsabilidad a través de la integridad en su funcionamiento, salvaguardar la imagen de la institución y reforzar su eficiencia, teniendo siempre presentes a sus grupos de interés, entendiendo por éstos, las personas o colectivos, internos o externos al Consorcio que tienen interés o están afectados por el desempeño de la gestión del mismo (Ayuntamientos Consorciados, Proveedores, Clientes, Usuarios y Consumidores, Administraciones Públicas, el Equipo Humano, la Comunidad Local, las empresas del sector y los Colaboradores).

## 2. BALIO KORPORATIBOAK.

Kudeaketa bultzatzen duten eta jardunaren oinarri diren balio korporatiboak hauek dira: profesionaltasuna, objektibotasuna, jokabidearen gardentasuna, prestutasuna, zuzentasuna, erantzukizuna eta pertsonenganako errespetua, berdintasuna eta leialtasuna.

Partzuergoko langileek honela beteko dituzte eginkizunak, gauzatuko dituzte zereginak eta eramango dituzte aurrera esleituriko jarduerak:

- Ahalik eta zehatzen eta egokien, beraien eraginkortasun-mailaren mugarekin.
- Interes pertsonalak kontuan izan gabe.
- Beharrezko informazioa egiaz eta era ulergarrian emanez, arlo horretan araudi aplikagarriak eta erakundearen gobernu onak ezartzen duten mugarekin.
- Arteztasunez eta zintzotasunez.
- Inpartzialtasunez, erabakiak hartzean.
- Erantzukizunez, esleituriko jarduerak aurrera

## 2. VALORES CORPORATIVOS.

Los valores corporativos que inspiran su gestión y constituyen la base de su desempeño son: la profesionalidad, la objetividad, la transparencia en la conducta, la honestidad, la ecuanimidad, la responsabilidad, así como el respeto por las personas, la igualdad y la lealtad.

El personal del Consorcio ejercerá sus funciones, realizará sus tareas y desempeñará las actividades encomendadas,

- Con la mayor precisión y propiedad que les es posible, con el límite de su grado de eficiencia.
- Sin tener en cuenta sus intereses personales.
- Facilitando, de forma veraz y comprensible, la información que sea precisa, con el límite que la normativa aplicable y el buen gobierno de la organización establezcan en esta materia.
- Con rectitud e integridad.
- Con imparcialidad en la toma de decisiones.
- Con responsabilidad en el desempeño de las

eramatean, eta ondorioak onartuz.

- Balioei eta Partzuergoaren interes-taldeak osatzen dituzten pertsonei begirunea eta adeitasuna gordez.

## 3. ETIKA ETA JOKABIDE KORPORATIBOKO KODEA.

**Legedia betetzea.**

Partzuergoak, erakunde gisa, bere jarduera-arlo guztietan aplikatzekoa zaion lege-araudia betetzeko konpromisoa du. Konpromiso horrek bere horretan dirau jarduerak hirugarren batzuek aurrera eramaten dituztenean ere.

Partzuergoaren konpromiso orokor horren atzean hura osatzen duten pertsonek hartutakoa ere badago, beren eginkizunak betez, zereginak gauzatuz eta jarduerak aurrera eramanez une bakoitzean indarrean den ordenamendu juridikoa betetzeko eta betearazteko ezinbesteko premisarekin, bermea eta kalitatea dituen zerbitzu publiko bat emateko helburuz, erabiltzaile eta bezeroen beharrizanak beterik.

**Partzuergoaren erantzukizuna, gardentasuna, eraginkortasuna eta gobernu ona.**

Partzuergoak, erakunde gisa, "kudeaketa onaren" konpromiso tinkoa du, esleitutako baliabideak erabiltzean eragimen eta eraginkortasunik handienarekin betez kudeaketa hori, jarduera guztietan gardentasun-ikuspegia hartuta, barruko zein kanpoko informazio-jarduerak direla, sozietatearentzat eta interes-talde nagusientzat balio erantsia sortzeko jarduerak direla, edo kontratazioak, jardunbide egokiak aurrera eramatekoak, eta abar direla.

Partzuergoaren konpromiso orokor horren atzean hura osatzen duten pertsonek hartutakoa ere badago, beren eginkizunak betez, zereginak gauzatuz eta jarduerak aurrera eramanez

actividades que les son encomendadas y aceptando sus consecuencias.

- Con consideración y deferencia a los valores y a las personas que conforman sus grupos de Interés.

## 3. CÓDIGO ÉTICO Y DE CONDUCTA CORPORATIVA.

**Cumplimiento de la legislación.**

El Consorcio, como Institución, tiene el compromiso de dar cumplimiento a la normativa legal que le es de aplicación en todos los ámbitos de su actividad. Dicho compromiso se mantiene aun cuando las actividades sean desarrolladas por terceros.

Este compromiso general del Consorcio está respaldado por el compromiso que adquieren las personas que lo integran, ejerciendo sus funciones, realizando sus tareas y desempeñando las actividades encomendadas bajo la premisa inexcusable de cumplir y exigir el cumplimiento del ordenamiento jurídico vigente en cada momento con el objetivo de prestar un servicio público de garantía y calidad satisfaciendo las necesidades de los usuarios y clientes.

**Responsabilidad, transparencia, eficiencia y buen gobierno del Consorcio.**

El Consorcio, como Institución, tiene el compromiso firme de la "buena gestión", cumplimentando la misma con la más alta eficacia y eficiencia en la utilización de los recursos asignados, desde un enfoque de transparencia en todas sus actividades ya sean de carácter informativo, de comunicación tanto interna como externa, de generación de valor añadido para la sociedad y los principales grupos de interés, de contratación, de desarrollo de buenas prácticas, etc.

Este compromiso general del Consorcio está respaldado por el compromiso que adquieren las personas que lo integran, ejerciendo sus funciones, realizando sus tareas y desempeñando las

ondorengoak ziurtatzen dituen barne-araudia betetzeko eta betearazteko ezinbesteko premisarekin:

- Baliabide-beharrizanak ondo zehaztuta egotea eta esleipen bakoitza guztien onuraren eta Partzuergoaren helburuen arteko orekaren ondorio izatea.
- Instalazioak, aktiboak, informazioa eta, oro har, Partzuergoaren baliabideak zaintzea eta modu onargarrian erabiltzea.
- Metodoak eta prozesuak, bai eta segurtatze eta autokontroleko arauak ere, ondo zehaztuta egotea eta errespetatzea.

**Zintzotasuna, prestutasuna, leialtasuna eta dedikazioa, zerbitzu publikoari dagokionez.**

Partzuergoak, erakunde gisa, bere interes-taldeekin harreman zintzo, leial, begirunezko eta etikoak izateko lan egiten du.

Konpromiso horren ondorioz, bada, Partzuergoko langileek honela beteko dituzte eginkizunak, gauzatuko dituzte zereginak, eta eramango dituzte aurrera esleituriko jarduerak:

- Beren ardura-eremuan ez dauden erabakiei buruz agintza edo adierazpen faltsurik egin gabe.
- Ustelkeria-praktikarik egin edo egiten utzi gabe, ustelkeriaren forma aktibo edo pasibo guztietan, mesedezko edo irregulartasuneko egoerak sortzen edo mantentzen dituzten ekintzen edo omisioen bidez.
- Partzuergoaren jardunari loturiko pertsona fisiko edo juridikoengandik halakoekiko harremanetan independentzia edo zuzentasuna galtzea eragin dezakeen ordain edo saririk jaso gabe, ohitura edo usadio sozialetatik kanpo.
- Lanalditik kanpo bada ere, eraginkortasuna edo produktibitatea galaraz dezakeen edo Partzuergoarentzat edo guztien onurarako

actividades encomendadas, bajo la premisa inexcusable de cumplir y exigir el cumplimiento de la normativa interna que asegura:

- Que las necesidades de recursos estén perfectamente definidas y que cada asignación sea el resultado del equilibrio entre el bien general y los objetivos del Consorcio.
- Que se preserven y se haga un uso aceptable de las instalaciones, los activos, la información y, en general, de los recursos del Consorcio.
- Que los métodos y procesos, así como las reglas de aseguramiento y de autocontrol sean perfectamente definidos y respetados.

**Integridad, honradez, lealtad y dedicación al servicio público.**

El Consorcio, como Institución trabaja por mantener unas relaciones francas, leales, respetuosas y éticas con sus Grupos de Interés.

Este compromiso implica que su personal ejercerá sus funciones, realizará sus tareas y desempeñará las actividades encomendadas:

- No haciendo promesas o manifestaciones falsas sobre decisiones que no están en su ámbito de responsabilidad.
- No realizando, ni permitiendo, ninguna práctica de corrupción, en todas sus formas activas o pasivas, por medio de actos u omisiones que crean o mantienen situaciones de favor o irregulares.
- No recibiendo, fuera de las costumbres y usos sociales, compensaciones ni–gratificaciones de personas físicas o jurídicas relacionadas con la actividad del Consorcio que puedan provocar una pérdida de la independencia y de la ecuanimidad en las relaciones con éstas.
- No realizando ninguna actividad económica ni prestando ningún servicio, incluso fuera del horario de la jornada laboral, que pueda

eragin negatiboa izan dezakeen jarduera ekonomikorik egin edo zerbitzurik eman gabe.

suponer una pérdida de eficiencia o de productividad o tener un efecto negativo sobre el Consorcio o el bien general.

**Funtsezko eskubideen defentsa.**

**Defensa de los derechos fundamentales.**

Partzuergoak, erakunde gisa, funtsezko eskubideak eta askatasun publikoak defendatzeko konpromisoa du, giza duintasunaren errespetuan gauzatuta batik bat.

El Consorcio, como Institución, tiene el compromiso de la defensa de los derechos fundamentales y de las libertades públicas, materializándose, principalmente, en el respeto a la dignidad humana.

Partzuergoaren konpromiso orokor horren atzean hura osatzen duten pertsonek hartutakoa ere badago, beren eginkizunak betez, zereginak gauzatuz eta jarduerak aurrera eramanez giza eskubideak eta askatasun publikoak erabat errespetatzen eta bermatzen dituztelarik.

Este compromiso general del Consorcio está respaldado por el compromiso que adquiere su personal, ejerciendo sus funciones, realizando sus tareas y desempeñando las actividades encomendadas con pleno respeto y garantía de los derechos humanos y libertades públicas.

**Errespetua, aukera-berdintasuna eta bereizkeriarik eza.**

**Respeto, igualdad de oportunidades y no discriminación.**

Partzuergoak, erakunde gisa, jazarpentzat edo larderiatzat har daitekeen jokabiderik gabeko lan giroa mantentzeko konpromisoa du, bere instalazio eta jarduera-eremu guztietan. Halaber, enpleguaren edo lanbidearen alorrean oinarrizko printzipioak dira pertsonen berdintasuna, merezimendua eta gaitasuna, batere bereizkeriarik egin gabe adinean, osasunean edo ezintasunean; sexuan edo sexu-joeran; arrazan, jatorri etnikoan edo gizarte-jatorrian; ideologian, erlijioan edo sinesmenetan oinarriturik.

El Consorcio, como Institución, tiene el compromiso de mantener un ambiente de trabajo, en todas sus instalaciones y ámbitos de actuación, libre de cualquier conducta susceptible de ser considerada como acoso o intimidación de cualquier otra naturaleza. Así mismo, son principios básicos en materia de empleo u ocupación, la igualdad, el mérito y la capacidad de las personas, sin discriminación alguna por razón de edad, salud o discapacidad; sexo u orientación sexual; raza, origen étnico u origen social; ideología, religión o creencias.

Partzuergoaren konpromiso orokor horren atzean hura osatzen duten pertsonek hartutakoa ere badago, beren eginkizunak betez, zereginak gauzatuz eta jarduerak aurrera eramanez jazarpeneko edo larderiako jokabideak prebenitzeko jarrera harturik. Halaber, enpleguaren eta lanbidearen arloko printzipio nagusi bakartzat pertsonen berdintasuna, merezimendua eta gaitasuna ezartzea eta sustatzea bermatzen duen barne-araudia betetzen dela zainduko dute.

Este compromiso general del Consorcio está respaldado por el compromiso que adquiere su personal, ejerciendo sus funciones, realizando sus tareas y desempeñando las actividades encomendadas, desde una posición de prevención de conductas de acoso o intimidación. Así mismo, velarán por el cumplimiento de la normativa interna que asegura el establecimiento y promoción, como únicos principios generales en materia de empleo u ocupación, de la igualdad, el mérito y la capacidad de las personas.

**Ingurumenaren gaineko eragina eta laneko arriskuak prebenitzea.**

Partzuergoak, erakunde gisa, ingurumena babesteko eta laneko arriskuak prebenitzeko konpromisoa du.

Partzuergoaren eginbide orokor horren atzean hura osatzen duten pertsonek hartutakoa ere badago, beren eginkizunak betez, zereginak gauzatuz eta jarduerak aurrera eramanez ondorengoak ziurtatzen dituzten prozedurak betetzeko eta betearazteko ezinbesteko premisarekin:

- Garapen iraunkorraren defentsa ezartzea eta aplikatzea oinarrizko printzipiotzat.
- Ingurumenaren inguruko jokabidean etengabeko hobekuntza lortzen saiatzea, Partzuergoaren jarduerak ingurumenaren gainean izaten dituen eraginak minimizatzeko.
- Lanpostu bakoitzean osasunaren babesa sustatzea, horrela, Partzuergoko lan-jardueraren barruan ingurune seguruagoa lortzeko.
- Partzuergoaren hornitzaile eta kontratistei erakundeak bere gain hartutako konpromiso berberak bete ditzatela eskatzea, garapen iraunkorraren defentsari, ingurumenaren inguruko jokabideari eta laneko segurtasuna eta osasuna babesteari dagokienez.

Etika Kode honen bitartez, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko lantaldeak eguneroko jardueran bere gain hartzen dituen konpromisoak islatu eta jakinarazi nahi ditu, bai eta epe luzean haiek betetzeko egiten duen etengabeko ahalegina ere, erakunde osora zabalduta Partzuergoarentzako Etika Kode Nagusi bat taxutzeko prozesuan duen parte-hartzea.

**Prevención del impacto ambiental y de los riesgos laborales.**

El Consorcio, como Institución tiene el compromiso de la protección del medio ambiente y de la prevención de los riesgos laborales

Este compromiso general está respaldado por el compromiso que adquiere su personal ejerciendo sus funciones, realizando sus tareas y desempeñando las actividades encomendadas bajo la premisa inexcusable de cumplir y hacer cumplir sus procedimientos que aseguran:

- Que se establezca y aplique, como principio básico, la defensa del desarrollo sostenible.
- Que se persiga la mejora continua en el comportamiento ambiental, en aras a contribuir a minimizar los impactos ambientales generados por la actividad del Consorcio.
- Que se potencie la protección de la salud en cada puesto de trabajo, consiguiendo, de esta forma, un entorno más seguro dentro de la actividad laboral en el Consorcio.
- Que se exija a los proveedores y contratistas del Consorcio el cumplimiento de los mismos compromisos que los suscritos por ésta en materia de defensa del desarrollo sostenible, de comportamiento ambiental y de protección de la seguridad y salud en el trabajo.

Mediante este Código Ético, la plantilla del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia pretende reflejar y comunicar los compromisos que asume en su actividad diaria y el esfuerzo permanente que realiza en asegurar su ejecución en el largo plazo, haciendo extensivo al conjunto de la Institución su participación en el proceso de elaboración de un Código Ético General para el Consorcio.